

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: **2008/37/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko martxoaren 11koa, berraseguruari dagokion 2005/68/EE Zuzentaraua aldatzen duena, Batzordearen betearazte-eskumenei dagokienez**

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DIRECTIVA 2008/27/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 11 de marzo de 2008 que modifica la Directiva 2005/68/CE relativa al reaseguro, por lo que se refiere a las competencias de ejecución atribuidas a la Comisión» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala*, L 81/71, 2008/3/11koa).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2008/37/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2008ko martxoaren 11koa,

berraseguruari dagokion 2005/68/EE Zuzentaraua aldatzen duena, Batzordearen betearazte-eskumenei dagokienez

(Testu egokia EEEri dagokionez)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Trataturia, eta, bereziki, haren 47. artikuluko 2. paragrafoa eta 55. artikulua aztertu dituzte,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Eta, Trataturiko 251. artikulua ⁽²⁾ araututako prozedura betez, alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) 2005/68/EE Zuzentarauak ⁽³⁾, Europako Parlamentuarenak eta Kontseiluarenak, xedatzen du, zein diren 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiaren arabera onartu beharreko neurriak. Erabaki horretan ezarrita dago zein prozedura bete behar dituen Batzordeak ⁽⁴⁾ berari dagozkion betearazte-eskumenez baliatzeko.

(2) 2006/512/EE Erabakiak 1999/468/EE Erabakia aldatu zuen. Lehenengoan, Trataturiko 251. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera hartutako oinarritzko egintza batean funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko zein neurri orokor hartu behar diren kontrolatzen duen arautze-prozedura barneratzen zen. Zenbaitetan elementu horietako batzuk ezabatzen ziren, edo funtsezkoak ez diren egintzak beste elementu batzuekin osatzen.

(3) Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen 2006/512/EE Erabakiari buruzko Adierazpenaren ⁽⁵⁾ arabera, Trataturiko 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki hartu diren eta indarrean dauden egintzetan kontrolatzen arautze-prozedura aplikatu ahal izateko, egintza horiek aplikatu beharrekoak diren prozeduren arabera egokitu behar dira.

(4) Batzordeari eskumenak ematea komeni da 2005/68/EE Zuzentaraua gauzatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzan, aseguruaren sektorean edo finantza-merkatuetan izaten diren aldaketa teknikoak kontuan hartzeko eta Zuzentarau hori uniformeki aplikatzea bermatzeko xedez. Bereziki, hauek dira neurri horien helburuak: forma juridikoen zerrenda luzatzea, kaudimen-marjina eratzeko elementuak argitzea edo egokitzea, berraseguruko eragiketen edo kontratu-mota jakin batzuen kaudimen-marjina kalkulatzeko erabiltzen diren primen edo ezbeharren zenbatekoak areagotzea, berme-funtsaren gutxieneko zenbatekoa aldatzea eta definizioak zehaztea. Neurri horiek

(1) EO C 161, 2007.07.13koa, 45. or.

(2) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko uztailaren 10ekoa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko martxoaren 3koa.

(3) L 323 EO, 2005.12.09koa, 1. or. Zuzentarau hori 2007/44/EE Zuzentarauak (L 247 EO, 2007.09.21ekoa, 1. or.) aldatu zuen.

(4) L 184 EO, 1999.07.17koa, 23. or. Erabaki hori 2006/512/EE Erabakiak (L 200 EO, 2006.07.22koa, 11 or.) aldatu zuen.

(5) C 255 EO, 2006.10.21ekoa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

orokorrak eta 2005/68/EE Zuzentarauan funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

(5) Horrenbestez, aipatutako 2005/68/EE Zuzentaraia aldatu egin behar da.

(6) Zuzentaraia honen bitartez 2005/68/EE Zuzentarauan egin beharreko aldaketak teknikoak direnez eta komitearen prozeduran soilik eragiten dutenez, ez dituzte, ezinbestez, estatu kideek bere egin behar. Horren ondorioz, ez da beharrezkoa horretarako xedapenik ezartzea.

ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Aldaketak

2005/68/EE Zuzentarauan honako aldaketa hauek egin dira:

1) 55. artikulua honela aldatuko da:

a) 2. paragrafoaren ordez, testu hau jarriko da:

«2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluko 1etik 4ra bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua aplikatuko dira, 8. artikuluan xedatutakoa ere betez»;

b) 3. paragrafoa ezabatu egin da.

2) 56. artikuluan, sarrerako esaldiaren ordez, testu hau jarriko da:

«Jarraian ematen diren betearazte-neurri horien helburua Zuzentaraia honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzea izango da, eta 55. artikuluan, 2. paragrafoan, agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

2. artikulua

Indarrean sartzea

Zuzentaraia hau Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

3. artikulua

Hartzaileak

Zuzentaraia honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon emana, 2008ko martxoaren 11n.

Europako Parlamentuaren izenean, Presidente H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean, Presidente J. LENARCIC